

` ` Still Obsessive Lady ` `

Gabriela Kraviez

2021 abe 18 - 2022 ots 23

CarrerasMugica

Aurre(testua): latinetik, *praetextus*, ehun bati aurrealdean egiten zitzaizkion brodatuen multzoa, aurrean zerbait ehotzea, beste ehun baten gainean.

Pentsamendu mota guztiek bezalaxe, praktika artistikoa ere norabide askotan garatzen da, korapiloz eta kiribilez elkarri lotuta dauden hainbat geruza dauzkan mihise handi baten antzera, denbora lineala ez bezala.

Prozesu horretan, garai bateko zenbait artelan berriro azaleratu daitezke, eta konektatu ahal dira, orainaldian berreguneratuz, esanahi berriak ekoiztuz. Horrelakoa izan da niretzat *Obsessive Lady* deitu nuen seriearekin berriro topo egitea.

Erakusketa honetarako gonbidapena aukera moduan aurkeztu zitzaidan, 1999tik aurrera hasi eta 2003/4 urtean zintzilik utzi nuen serie hura berraktibatu eta jarraitzeko.

Garai hartan, sistema hierarkikoa, sistema falozentrikoa, baztertzaila eta autoritarioa irudikatzen zuen Pintura kutsarazi nahi nuen, 1980ko hamarkadako Pintura “handizale” eta komertzial bereizgarriarekin amaitu zena. XX. mendearen hasieratik gehienbat emakumeek egindako lanen zati handi bat ezabatu zuen sistema horrek, artelan haien egileek pintura zentzu askoz zabalagoan ulertzea lortu eta gero; haiek eredutzat hartu zituzten herri-arte eta dekorazio-arte, artelanetan txertatuz ehunak, brodatuak eta txikitat jotako beste teknika batzuk, etxe barrukoarekin lotuta zeudenak. Errusiako abangoardiako artistak izan ziren nire erreferentzia garrantzitsuenetako bat: Liubov Popova, Varvara Stepanova, Olga Rozanova eta, zehatzago azaltzeko, pinturaren eta ehun-diseinuen arteko erlazioa. Baina baita Sonia Terk Delaunayren eta Sophie Taueber Arpen lanak ere. Orobat laurogeita hamarreko hamarkadaren erdian aurkitu izana Gegoren obra, espazioko ehunekin, eta Lygia Paperen lanak; ehuna pentsamendu-sistema moduan ulertu zuten bi artista. Era berean, bereziki interesatu zitzaidan Rosemarie Trockel, mekanikoki ehundutako haren margolanak, jertseak eta buru-berokiak, janzkiaren eta eskulturaren bitartean koka zitezkeenak.

Dirudienez, duela 20 urteko nire kezkek orainaldian espazio berri bat aurkitu dute, lotura berriekin. Gizarte patriarkalak feminitatearen ideari ematen dion esanahia, femenino moduan zer portaera eta lan-mota definitzen diren, “artista emakumeek” ekoiztutako “emakumeen” arte bat izatea, horrek dakarrenarekin: artearen lengoaiari bertan hierarkia bat nagusitu da, artea eta artistak, berezko izaeraz, gizonak direnaren ustean.

Niretzat interesgarriak ziren estereotipo femeninoaren ideia, femeninotzat jotzen ziren zereginak eta espazioak, apaingarriaren, edertasun-nozioaren eta genero femeninoaren arteko harreman banaezina, neurri handi batean lana banatzeak azalduta. Emakumeei ehungintza esleitu zieten, ez da harritzekoa munduko apaintze-lanen arloko artista gehienak emakumeak izatea.

Hala ere, nik ez dut inoiz ehuntzen edo brodatzen jakin...

Feminitatearen nozioa bera jorratzea erabaki nuen, “ustez femenino” zen pintura baten bitartez, etxeko ehunak eta trapu brodatuak neurrigabe irudikatuta. Genero femeninoak egin zitzan bideratutako eskulan horiek formatu handietara zabaldu, umore-kutsua sartuz eta daukaten ahalmen bisuala eta poetikoa adieraziz.

Horrela, “feminotzat” jotzen den arte bat ikusgai jarri, aldi berean feminitatearen nozioa bera auzitan ezarriz eraikitze ideologiko hutsa den heinean, eta, agian, modua eman sistema bitarretik haragoko beste feminitate batean pentsatzeko.

Gilles Deleuze irakurriz, gizartearen emakume-bilakaera batean sinetsi nahi izan nuen, sistema menderatzaitetik ihes egiteko gorputz bitarretik alde egitean... baina, aurrerapen batzuk egin diren arren, oraindik ere “artista emakumeek” ari gara.

Erakusketa honetan aurkeztu dudana lan-seriean Euskal Herriko gututze-puntuko brodatuen hainbat patroiz aztertu dira. Jatorriz, euskal brodatuak emakumeen esku zegoen lihoaren manufakturarekin lotzen ziren. Landaretik haria ateratzeko eraldatze-lanekin batera uzartzen ziren kultura-adierazpenak ere, “generoaren kulturalizatzea”¹ markatzen zutenak. Brodatuek eredu jakin batzuk betetzen dituzten era berean, emakumeek ere beren sexuari zegozkion portaera-patroiz batzuk betetzen zituzten.

Seriea hasi nuenean, sukaldean pentsatu nuen, emakumeen etxeko espazioaren topiko gisa. Telebistako sukaldaritza-programa zaharrei gogoratu nintzen, egungo sukaldariaren glamourrik ez zeukaten sukaldariekin egindakoak, eskualde edo herrialde bateko klise folkloriko bat irudikatzen zutenak, hala nola Iparraldeko ordezkatzaren zuten Maité.

Eredutzat ezpainzapi eta sukaldeko trapu brodatuak hartu nituen. Beti liluratu izan nau apaintzeko osagaiak objektuekin harreman berezi bat eratzeko duten gaitasunak, eta sukaldeko trapu edo ezpainzapi soil batek nola transmiti ditzakeen etxekotasuna, oroitzapenak, kultura bateko kide izatea... Eta, bestalde, osagai brodatu horiek hainbat kulturak darabilen errepertorio bateko patroiz osatuta

1- Aip. *Bordados de punto de cruz en la colección del museo San Telmo*, Mariasun de Miangolarra, Eva M. Elorza, 2017.

daudela jakitea, identitate partikularretako zeinuak eraginez eta nahasketaz betetako historia bat dutela azpian. Atzerritarra naizenez, ez nuen kasualitatez hautatu euskal brodatuak margotzea... Gainera, brodatua lotuta dago "ertza" esan nahi duen *bord* hitz germaniarrarekin, eta interesatzen zait bi espazio lotzen dituen espazio deszentratu lekualdatu hori.

Beti interesatu izan zaizkit oihalak eta ehunak erlazio konplexuko egitura moduan, banaezinak direnak gorputzarekiko eta gure historia indibidual eta kolektiboarekiko. Ehuna mekanikoarekin eta eskuzkoarekin lotuta, ukitu daitekeenarekin, emozioekin eta oroitzapenekin.

Marrazketa eta pinturari ekiteko metafora konplexu moduan jorrazten dut ehuna.

Pintura oihala balitz bezala pentsatzen dut, linearen rola eta kolorea nabarmenduz oihalaren beraren egitura-elementu gisa.

Patroi batzuk aukeratzen ditut, eta errepikatu egiten ditut. Nik neuk errepikatzeo obsesioa daukat. Nire obra guztiek ezaugarri komun bat izatekotan, errepikatzea da hori. Patroi batean kontzentratzen naiz, eta hura errepikatzean. Errepikatzea obsesioa ere bada, adikzioa. Beharbada, horregatik gustatuko zaizkit hainbeste ehunak, infinituraino errepikatzen diren bilbeekin eta patroiekin.

Errepikatu eraldatzeko, errepikatu ulertzeko, errepikatu eskuzko keinua beti desberdina dela frogatzeko, errepikatu kontzentrazio-erritmo batean sartzeko, errepikatu denborarekin erlazionatzeko, errepikatu nire burua joanean uzteko, errepikatu pentsatzeko.

Egitearen kontzientzia hartu, eskua pentsamendu gisa hartu. Lerroetan kontzentratu, marra-ildoetan banan-banan. Horien elastikotasuna, irregulartasuna, tentsioa, indarra eta hauskortasuna margotu. Neure burua joanean utzi oihalaren alearekin, paperaren ehundurarekin, neure eskuaren pisuarekin eta dardararekin...

Kolorea landu, kolore-lerroa eta forma-kolorea, nabarmendu ahal izateko apaindurak historia pertsonal eta kolektibo baten marka gisa duen indarra.

Joan diren azken 12 urteetan, museoek eta beste erakunde artistiko batzuek ikusgaitasuna eman diete XX. mendean ehungintzarekin lotuta emakumeek ekoiztutako lanei; arte-azoka eta -galerietan, historia horren oinordeko diren artista garaikideen lan ugari daude erakusgai. Ehungintzarekin lotutako lanak biderkatu egiten direla dirudi.

Obsessive lady seriea orainaldian instalatu da berriro.

Gabriela Kraviez (Buenos Aires, 1965). Paris eta Donostia artean bizi eta lan egiten du. Parisko Arte Ederren Goi Eskola Nazi-onalean diplomaduna, Paris 8 Unibertsitateko Estetika eta Arte Garaikideko masterduna, eta Filosofia-mintegietan ikasi zuen Alain Badiouekin Pariseko Collège International de Philosophie-n. 1994tik 2014ra Artelekuko ikastaroetan parte hartu eta lan egin zuen. Banakako eta taldeko hainbat erakusketatan parte hartu du, besteak beste, hauetan: Imaginarios mecánicos (IVAM, Valentzia), Zeru bat, hamaika bide (Artium), Kaldarte. Proyectos en el espacio público (Caldas de Reis), Ruido como de piedra en el neumático izquierdo (Halfhouse, Bartzelona).




Ikuspegi orokorra



Ikuspegi orokorra



Ikuspegi orokorra



Still Obsessive Lady (chorreando), 2021
Akrilikoa, tinta akrilikoa eta arkatza oihalaren gainean
195 x 130 cm.



Doble Obsessive Lady (marrón y verde), 2002. Akrilikoa eta binilikoa oihalaren gainean. 195 x 260 cm. (diptikoa)





Doble Obsessive Lady (marrón y verde), 2002 (xehetasuna)
Akriliko eta biniliko oihalaren gainean
195 x 260 cm. (diptikoa)




Obsessive Lady II (verde y rosa), 2001. Akriliko eta binilikoa oihalaren gainean. 195 x 130 cm.

Obsessive Lady II (verde y rosa), 2001 (xehetasuna)
Akrilikoa eta binilikoa oihalaren gainean
195 x 130 cm.





Obsessive Lady (rojo), 2001. Akrilikoa, binilikoa eta arkatza oihal gainean. 195 x 130 cm.



Goian
Obsessive Lady (rojo), 2001 (xehetasuna)
Akrilikoa, binilikoa eta arkatza oihal gainean
195 x 130 cm.

Eskuina
Obsessive Lady (rectangular), 2001 (xehetasuna)
Akrilikoa, binilikoa eta arkatza oihal gainean
130 x 100 cm.





Obsessive Lady (rectangular), 2001. Akrilikoa, binilikoa eta arkatza oihal gainean. 130 x 100 cm.



Still Obsessive Lady (muchos colores), 2021. Akrilikoa, binilikoa eta arkatza oihal gainean. 195 x 130 cm.

Still Obsessive Lady (muchos colores), 2021
Akrilikoa, binilikoa eta arkatza oihal gainean
195 x 130 cm.







Ikuspegi orokorra





Ikuspegi orokorra


Still Obsessive Lady (mantel), 2021
Akrilikoa eta arkatza oihal gainean
195 x 130 cm.






Still Obsessive Lady (deseñido), 2021
Akrilikoa, tinta akrilikoa eta arkatza oihal gainean
195 x 130 cm.





Obsessive lady (rojo y blanco), 2001
Akrilikoa eta arkatza paper gainean
32 x 24 cm.



Obsessive lady (rosa y marrón), 2001
Akrilikoa, binilikoa eta arkatza paper gainean
32 x 24 cm.



Obsessive lady (rojo borrado), 2001
Akrilikoa eta arkatza paper gainean
32 x 24 cm.



Ikuspegi orokorra



CarrerasMugica

www.carrerasmugica.com

info@carrerasmugica.com

Calle Heros 2 / E-48009 BILBAO
T. +34 944234725